



Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

11.00.15

citius, altius, fortius...



© Gettyimages

Atleta bizkorrenak, altuenak eta indartsuenak (*citius, altius, fortius*) irabaziko dituzte sariak datozen Joko Olinpikoetan. Hala eta guztiz ere, milaka pertsona ari dira jadanik kirolari horientzat jantziak eta oinetakoak josten, eta ez dute ezertxo ere jasoko horren truke, nahiz eta denbora gehiago, bizkorrago eta merkeago lan egin (*longius, citius, parvius*).

Global express honek kirolaren negozioaren atzean dagoena deskubritzera gonbidatuko gaitu eta, bereziki, aztertzea zergatik ari den ehungintzako milioika pertsona oso egoera txarrean lan egiten.



Lehiaketa modernoetako jainko berriak

Joko Olinpikoekin dirua irabaztea

Negozio eredu berria

Gehiago gutxiagoren truke

Lan duina negoziatzen

Lan eskubideak globalizatu

aurkibidea

Lehiaketa modernoetako jainko berriak



Kirolerako produktu gehien saltzen duten enpresei ere dominarik eman beharko bagenie, seguruenik Nike, Adidas, Reebok, Fila, Puma, ASICS eta Mizuno igoko lirakeke podiumera. Konpaini hauek lidergoa daukate 2002 urtean bakarrik, 58.000 milioi dolar eman zuen merkatuan.

Ordea, ehungintza enpresa horien irabaziaz ez lirakeke horren izugarri, beren marketing estrategiak birbideratu izan ez balituzte. Lehen, eginkizun zehatz baterako produktu bereziak saltzen zituzten eta erosle jakin batzuentzat; orain, modako artikulutzat aurkezten dituzte publiko zabalagoarentzat, horrek kontsumitzaile

kopurua handitu duelarik, erosle gazteek osatutakoa, batez ere.

Zurrunbilo honen barruan, kirolerako ekipamenduen enpresak, produktuak prezio konkurrentetan eskaintzeko borrokan ari dira, modaren araberakoak eta kalitatezkoak, akziodunek irabazirik handiena eskuratzen dutelarik aldi berean. Horretan daukate Olinpiadek oso garrantzizko rola erosleak erakarri eta fideltzeko. Aipatu gertakaria abangoardiako produktuak atera eta ikusgarritasun handiena lortzeko publizitate kanpaina masiboak bultzatzeko primerako eskenatokia da.

Joko Olinpikoekin dirua irabaztea



80ko hamarkadaren hasieratik, enpresek kirolari ematen dioten babesak Joko Olinpikoen ezaugarri bilakatu da. Ekintza filantropiko legez hasi zena, gaur negozio onuragarri dugu. Olinpiada modernoetako jainko berriek milioika dolar erabiliko dute publizitate eta marka irudirako, gertakari honek, haien izena kirol garaipen eta ideial olinpikora lotuz, merkatu berriak zabalduko dizkiela jakinik.

Joko Olinpikoetako web gune ofizialean argitaratutako informazioaren arabera, aurtengo abenduan, babesleengandik jasotako diru kopurua 648 milioi dolarera helduko da. Baina babesak espezieetan ere ematen da. Adibidez, Adidas izango da Atenas 2004ko "Sport Clothing for Uniform" delakoaren babesle ofiziala eta Reebok jantziko du, besteak beste, Espainiako Atletismo Federakunde Errealak datozen Joko Olinpikoetan.

Kirolerako produktuen enpresek dirutza handia inbertitzen dute, aurretik, hori bai, aterako duten etekina milioika dolaretan kalkulatu. Nikek 1.028 milioi dolar erabili zuen 2002an,

gehienak babesean eta kirolariei laguntzeko kontratuetan. Beste handietako batek, Adidas, 161 milioi dolar erabili zuen David Beckham futbolaria bizitza guztian zehar babesteko.

Halatan, babesak ez da Olinpiadetan dirua irabazteko modu bakarra. Mugimenduak, Nazioarteko Olinpiar Batzordea (COI), Olinpiar Batzorde Nazionalak (CON) eta Batzorde Antolatzaileen (COJ) bitartez, lizentziak eskaintzen dizkie enpresei olinpiadetako "souvenirrak" ekoiztu eta saltzeko, txanoak, jertseak eta kamisetak, esaterako. "Royaltien" truke, enpresek olinpiar ikurra beren produktuetan erabiltzeko eskubidea daukate. "Olinpiadetan Garbi Jokatu" nazioarteko kanpainako txostenaren arabera (CC.OO., UGT, Setem e Intermon Oxfam) "royaltien" ordainketak 66 milioi dolareko irabaziaz sortuko ditu Atenas 2004ko Jokoetan.

Frogatutako adibiderik bilatuz gero, kanadar Roots enpresak 25 milioi dolar baino gehiago irabazi zuen talde olinpikoen jantzien kopiak saltzen 2002an, Salt Lakeko Neguko Jokoak izandako bi asteetan zehar.

Negozio eredu berria




Globalizazioa garapenerako indar handia izan liteke, lanpostu duin eta formal berrien sortzailea, milioika pertsonari pobreziatik irteteko lagungarri, bizibidea hobetu eta familien etorkizuna ziurtatuz. Aitzitik, errealitateak milaka pertsona aurkezten digu, enplegua izan arren, globalizazioak emandako etekinetan parte hartzeko aukera sistematikoki ukatuta daukatenak.

Garai batean, enpresak gizarte kohesiorako lotune ziren, langile erkidegoek osatuta eta inguruaren garapena bultzatzen zuten beraien garapen eta hazkuntzarako behar zutelako. Langileek epe luzerako harremana zuten enpresekin (bizitza guztirako batzuetan), eta beren familia eta giza ingurua erkidego iraunkor jakin bati lotuta zegoen, "beren" enpresari.

Azken urteotan, konkurrentzia izan da nagusi merkatal harremanetan, ehungintza eredu ona delarik. Izen handiko markek eta moda kateek ez daukate mugarik eta gero eta etekin handiagoa atera nahi dute kosteak murriztuz. "Gehiago gutxiagoren truke" leloa betetzeko, prozesuan lan esku gehien daukan zatia kanpora daramate. Hau da, jantziak ebaki, egin eta bukatu Bulgaria, Kanboia, Txina, Indonesia, Tailandia edo Turkia bezalako herrialdeetan egiten da, lan eskua merkeagoa den herrietan.

Nola irabazi dirua merkatu konkurrentean? Joera berria prezioak murrizteko etengabeko presioan oinarrituta dago, entrega arin eta moldagarriak eta ekoizpen prozesuen kokapenik eza. Ekoizpena merkatzeko nahi hori hain da handia ezen kirol jantzien enpresa bat herri eta fabrikatzailez aldatu zen beste leku batean produktu hori bera piezako 0,40 dolare merkeago eskaini ziotelako ¹. Horrela jantzi eta oinetakoen industria barruko gehienei segurtasun eza eta zaurgarritasuna besterik ematen ez dien negozio eredu bilakatu da, eta aberastasuna bakar batzuei baino ez.

Kirolerako gaien enpresen funtzionamenduaren eta langileen egoera txarraren arteko harremana



¹ Niken hornitzaile baten testigantza. "Juega limpio en las olimpiadas" txostena. CCOO, UGT, Setem eta Intermon Oxfam, 2004.

Azken bi hamarkadetan zehar, korporazio indartsuen eskubideak oso handitu eta indartu dira. Munduko Merkataritza Erakundearen (OMC) bitartez eta erregioen arteko zein bi lurraldeen arteko akordioen bidez, enpresek babes handiagoa lortu izan dute, herri pobreetako gobernuak –diru sarrerak esportazio bidez lortzen dituztenak– eskuak eta oinak lotuta daudelarik. Azken hauek, kanpoko inbertsioak erakartzeko nahiaz, langileen eskubideak zapaltzen dituzte lan esku merkeagoa eta malguagoa

eskaini ahal izateko.

Enpresa hauen hornitze katea gero eta luzeagoa da eta azken zatian daudenak dira txarrena hartzen dutenak: fabriketako zuzendariak langileak luzaroago, azkarrago eta merkeago lan egitera behartzen dituzte. Fabrika zuzendari hauek entregarako epe motzak, eskaeren gorabeherak eta banakako koste merkeak onartzen dituzte, marka mundialen produkzio katearen atala izaten jarraitu ahal izateko.

Gehiago gutxiagoren truke



Joko Olinpikoek hasieratik bultzatu izan dituzten justizia, elkartasun, kideetasun idealak eta balore etikoak ez dira inolaz ere agertzen kirolariak erabili eta mundu osoan erakusleihoak beteko dituzten jantzi eta oinetakoen ekoizpenean parte hartzen duen milioika pertsonaren lan egoeran. Alderantziz oso. Askotan ez dira betetzen Lanaren Nazioarteko Erakundeak (OIT) ezarritako arauak, ez dira oinarritzko giza eskubideak errespetatzen eta soldatak ez dira familien oinarritzko beharrak betetzeko adinakoak.

Merkataritzaren liberalizazioaren azken 20 urteetan, milioika lanpostu sortu da enpresak produkzioa azpikontratatzearen bidez, koste murriztak eta lan esku moldagarria eskatzen duten ekoizpen kate globaletan. Ondorioz, milioika langilek presio jasanezina bizi du, lan segurtasunik ezean etengabe. Ez dute soldata duinik jasotzen eta oso egoera txarrean egiten dute lan, ez daukate eskubideak defendatzeko sindikaturik sortzeko eskubiderik, ordaindu gabeko ordu estrak pilatzen dituzte eta 16 lan ordu bete behar dute egunero, astean sei egunez.

Egoera honetan harrapatuta dagoen biztanleria emakume gazteek osatzen dute, batez ere, etorkinak, askotan. Kenyan, fabriketako lan eskuaren %75 emakumeak dira, Sri Lankan, %85 eta Kanboian, %90, 18-25 urte bitarteko bost emakumetik bat ehungintzan ari delarik.²

Sistemak krudelkeriaz jokatu du gizarteko talderik zaugarriene-takoarekin: emakume gazteak. Askotan, merkataritzaren onura jasotzen duten sektoreetan sortutako lanpostuak izaten dira alternatibarik onena, soldatari dagokionez, behintzat. Eta baina lan horiek hobekuntza marjinala besterik eskaini ez arren pobrezia larriko bizimodua dutenei, askok baldintza horiek onartuko dituzte nahiago dutelako soldata eskaseko lan txarra,

ezer ez izan baino. Bangladeshen, multinazional batentzat arropa josten lan egiten duen emakume batek –etxean edo fabrian– hango enpresa batean irabaziko lukeena baino gehiago eskuratzen du, baina horrek ez du ezer esan nahi, gehienek ez daukate gaixotasun edo amatasun baxarik, gutxiak dauka osasun aseguru edo langabeziarako eta, are gutxiago, etorkizunerako aurrezteko aukerarik.

Mara horietako bat da. 25 urteko emakume gazte kanboiarra da, Adidas markarako ehungintzan diharduena. Marak etxetik urrun egiten du lan, sei neba-arreba eta aitari ematen die jaten, hileko 65 dolar irabazten du eta oso-osorik bizirauteko darabil. "Gure nagusiak azkarrago lan egiteko esaten digu, ondo josteko eta ezarritako helburuak betetzeko. Nire helburua orduko 120 fraka jostea da. Horren truke 1,25tik 1,50ra dolar eskuratzen dut". Egunaren azkenerako 960 fraka josi ez badu, ordu estrak egingo ditu eta komunera joateko ere ez da mugitzen hileko saria ken ez diezaioten.



© Fernando Morales, Intermón Oxfam

² "Más por menos. El trabajo precario en las cadenas de producción globalizadas." Oxfam Internacional, 2004.

OLINPIADETARAKO izerditan

I fabrian, Joko Olinpikoetako ikurra daraman kirolerako arropa eta oinetakoak ekoizten dira, langileek (2003ko urriko elkarriketan) honako egoeran lan egiten dutela azaldu zuten:

- Esportaziorako epeak bete behar direnean, 17 orduko txandak betetzera behartzen dira langileak, sei egunez jarraian. Langileak lur jota daude. Haurdun dagoen emakume askok umea galtzen du amaiera gabeko lan orduak direla eta.

- Lan eskuaren lauren bat (2.000 langile) aldi baterako kontratatuta dago. Mugagabeki kontratatuta dauden langileen hileko soldata estandarren erdia jasotzen dute eta ordaindu gabeko ordu estrak betetzera derrigortzen dituzte, ez badute lan ordu normaletan ekoizpen helburua betetzen.

- Sindikatueta dabilzanak erasoak eta irainak jasaten dituzte.

- Emakume langileek, batez ere behin behinekoak, eraso sexualak sufritzen dituzte.

- Langileak hitzez erasotzen dituzte: "Txakur esaten digute eta hiltzeko".

- Langileek ez dute gizarte segurantzako ezelako laguntzarik jasotzen.

"Juega limpio en las olimpiadas" txostena. CC.OO. , UGT, Setem, Intermon Oxfam, 2004.

Lan duina negoziatzen



"...Langileen eskubideak defendatzea zein inportantea den ulertu nuen. Langileak arazorik badu, ez ditu bere eskubideak ezagutzen. Sindikatuak aholkua eman eta konpontzen lagun diezaioke." Prem, Tailandiako ehungintza fabrika bateko batzorde sindikaleko kidea.

Sindikatuak osasunetik hasi eta soldata zein lan orduen ziurtasuneraino doazen arloetan ordezkatzeko dituzte langileak. Akordioak nagusiarekin edo fabrikaren jabearekin eginiko "negoziaketa kolektibo" formalen bidez lortzen dira. Horrela, behar ez bezala kanporatu dituzten langileek, adibidez, edo eraso sexuala jasan izan dutenek defentsarako organismoa daukate. Horrez gain, sindikatuak gobernuak eta nazioarteko erakundeak presionatzeko tresna dira, langileen ardurako gaiek herrietako nahiz munduko erabaki politikoetan lekua izan dezaten.

Zaurgarritasun eta eskasia egoeran, sindikatueta parte hartzeko askatasuna ezinbestekoa da langileek egoera hobetu dezaten. Baina kirol ehungintzan justiziarako bide horrek arazoa izaten

jarraitzen du. Sindikatuak traba legal edo praktiko handiei egin behar diete aurre garapen bideko herri askotan, eta langileek ez daukate dirurik kuotak ordaintzeko, zigorren beldur dira, zerrenda beltz baten sartuko dituztelako, kanporatuko dituztelako edo, beste gabe, debekatuta daukate sindikatueta antolatzea.

Turkian Lotto eta Pumarentzat jantziak egiten dituzten fabriketako batean, Rana izeneko 22 urteko neska batek hauxe dio: "Alboko fabrikako langileak greban zeudenean gure nagusiak esan zigun : "ikusiko duzue, guztiak lan gabe geratuko dira. Ez ezazue horrelako hutsik egin. Osterantzean, ondorio berbera jasan beharko duzue".

Badira arauak aldatu dituztenak, sindikatu eta GKEen elkarte nazional berriak eratuz. Sri Lankan, adibidez. Han, orain gutxi, Labour Core Group deritzon taldean batu dira ehungintzako emakume langileen arazo larrienei buruzko kanpainan lan egiteko. Laguntza kolektiboa behar duen milaka pertsonarentzat itxaropen bidea.



Nork du egoera honen erantzukizuna? Hornitzaile eta kontratatzaileek, langileak duintasunez tratatu, bidezko lan egoera izan eta giro osasungarri eta seguruan lan egiteko bermearen erantzukizun morala eta legala daukate. "Kirolerako gaien enpresen funtzionamenduaren eta langileen egoera txarraren arteko harremana" eskeman ikusi dugunez, hornitzaileak ekoizpen katearen ia azken muturrean daude eta "lan gehiago, azkarrago eta merkeago" mandatua goragotik dator.

- Globalizazioaren dinamika eta merkatal konkurrentziak milaka pertsona merkataritza zuzenaren arauak apurtzera bultzatzen dute. Gobernuak –esportazioetan oinarritutako hazkunde ekonomikoaren bila eta Nazioarteko Moneta Fondoaren eta Banku Mundialaren laguntza- politika laborala egokitu (malgutu) egin dute ekoizpen konpainia globalen eskaerei erantzuteko.
- Enpresek Giza Erantzukizun Korporatiboaren kontzeptua merkatal praktikei buruzko salaketatik urruntzeko modutzat hartu dute. Kontzeptu berri hau, enpresak jokabide etikoa ezartzea, gizartearekiko konpromiso libre eta aktiboan datza, gizartea bera erkidego demokratiko, euskarri eta solidario legez eraikitzen laguntzeko. Giza Erantzukizuna ez da enpresen eginkizunera mugatzen, osatzen duten sarean nola kokatzen diren eta zer jokabide duten azaltzen du. Enpresek harreman guztietarako darabiltzan balore eta irizpideetan agertzen da.

Enpresa batzuetan "jokabide kodeak" idatzi dituzte, sindikatuak antolatu dira, inspeizioak eta auditoriak onartu dira. Baina, dossier honetan azaldu lege, enpresa guztiek ez dute martxan jartzen. Eta etika arloko arduradunek ezartzen dituztenean, erosketa eta salmenta arlokoek presioa egiten dute banakako prezio merkeagoak denbora laburrarekin lortzeko, giza zuzentasuna lortzeko ahalegina bertan behera geratuz.

- Bere aldetik, Nazioarteko Olinpiar Batzordea, jokoaren arauak erabaki eta aldatzeko boterea izateaz gain, marka olinpiko guztian eskubideen jabe ere badena, atleten jantziak eta souvenir gisako arropa eta oinetakoak esplotazio bidez egin dituzten enprekin tratuan dabil.
- Hiritargoak bere esku dauka langileekin garbi jokatzeko exijitzea, nazioarteko kanpainetako ekintzen bidez edota langileen eskubideak defendatzen dituzten erakundeekin bitartez. Gainera, erosten eta janitzen ditugun kirol soinekoak zeintzuk baldintzapetan egin diren jakiteko ardura har dezakegu, kirolaren atzean zer dagoen jakin. Aldakuntzak ez dira berez etorriko, enpresei kostea merkatu eta irabazia handitzen duen sistemari eustea komeni zaie... geu gara ardurazko kontsumorako bidean aldakuntzak bultzatuz.

Gehiago jakiteko...

Gehiago jakiteko...

Liburuak

Los objetivos de desarrollo del Milenio: un pacto entre las naciones para eliminar la pobreza.

Giza Garapenari buruzko Txostena 2002
PNUD, 2003.

“Juega limpio en las olimpiadas” txostena

Oxfam Internacional, 2004.
(www.IntermonOxfam.org)

“Más por menos” txostena

Intermon Oxfam, 2004
(www.IntermonOxfam.org)

Web orriak:

Web orriak:

- **Joko Olinpikoen historia**

http://eu.wikipedia.org/wiki/Joko_Olinpikoak

- **Finantzazioaren munduko atlasa**

www.realinstitutoelcano.org/analisis/360.asp

- **Dokumentu ofizialak**

www.olympic.org/uk/utilities/reports/index_uk.asp

- **Babesleak - Bazkideak**

www.gestiopolis.com/recursos/documentos/fulldocs/mar/elcosp.htm

www.elimparcial.com/edicionenlinea/notas/Deportes/20030711/60037.asp

- **Ikur olinpikoak**

www.elalmanaque.com/deportes/juegos_olimpicos/

- **Ingurumena eta Joko Olinpikoak**

www.tierramerica.net/2002/0217/grandesplumas.shtml

- **Dopina**

www.csd.mec.es/csd/salud-ca

- **"Arropa Garbia" kanpaina (Hegoaldeko herrialdeetako lan-esplotazioa)**

www.ropalimpia.org

- **Intermon Oxfam-en ikerketak**

www.intermonoxfam.org/page.asp?id=1110

www.intermonoxfam.org/cms/HTML/espanol/1143/JJ00.pdf

- **"Joka ezazu garbi" kanpaina**

<http://juegalimpio2008.blogspot.com/>

Sar zaitez gure web-gunean
eta behera kargatu
¡¡Global Express!!

www.IntermonOxfam.org/educar/global

Global express-ek galderak eragin eta sortu nahi ditu gure eskoletako ikasleen artean, komunikabideetan esaten dutenaz. Errealitatearen ikuspegi kritikoa sustatu nahi dugu, ikasleek munduaren egoera, bereziki, garapen bidean dagoen munduaren egoera ulertzeko aukera izan dezaten.

Global express ondoko talde hauen ekimena da: Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Holanda), Curriculum Development Unit (Irlanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) eta Intermon Oxfam (Espainia).



Didaktika gida

Didaktika gida

Prestatu dugun didaktika proposamena bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Ariketak gizarte arlorako, etikarako, tutoretzarako baliagarri izan daitezke, baita interesatutako edozein irakaslerentzat ere. Helburua ez da Joko Olinpikoez eztabaidatzea, baizik eta kirola negozio-ikuskizun bilakatzeak izan ditzakeen ondorioez, bereziki haiengan.

EGILEAK: INTERMON OXFAMEKO EKINTZARAKO IKERKETA IRAKASLEAK

1. ariketa:

Aurretiko kontzeptuak

Helburua: ikasleriak kirolaz, eginkizun eta ikuskizun legeaz, dituen ideiak agertzea.

Azterbidea: ariketa honek, ahozkoa eta kolektiboa, kirolaren balioaz eta kirol-ikuskizunak eragin dezakeen kontrabaloaz hausnarketa egiteko aukera emango digu. Aurtengo urte olinpikoa ikasleria motibatzeko une egokia dugu.

2. ariketa:

Espiritu olinpikoa, garbi joka dezagun

Helburuak: Espiritu olinpikoa delako kontzeptuaz hausnarketa egin eta kirol-ikuskizunaren dinamikak berak ez betetzera bultzatzea ikustea.

Azterbideak: igeriketa domina banaketaren ariketak argira ekartzen ditu inbertsio handi behar duten kirol batzuetan - herri pobreek ezin egin ditzaketenak- zein desberdinak diren aukerak. Ondoren proposatutako ikerketa ideia hori baieztatzea dator. Ariketa dopingari buruzko hausnarketarekin amaituko da, hedabideen intereseko gaia (izandako berriak aprobetxa daitezke). Helburua ez da kirolariaren azterketa zehatza egitea (elikadura, entrenamendua, etab) ezta errudun bakartzat hartzea ere, negozio-ikuskizunaren dinamikaren barruan kokatu behar dugu.

3. ariketa:

Ikuskizunaren negozioa: babesleak

Helburua: kirol jantzien enpresak, joko olinpikoak eta, orokorrean, profesionalizatutako kirola negozio-ikuskizun bilakatzearekin irabazia jasotzen dutenetakoak direla ikustea.

Azterbideak: nabarmendu kirol jantzien enpresak ez direla irabaziak jasotzen dituzten bakarrak; hedabideak hartu beharko dira kontutan (telebisten eskubideak, publizitatea, ikusteko ordainketa, etab) Lehenengo ariketarako informazioa http://es.wikipedia.org/wiki/Juegos_Olímpicos_de_Atenas_2004 gunean topa daiteke. Herrietan sartu ahal izateko www.olympic.org/uk/organisation/noc/index_uk.asp gunean sartu behar da. Hemen, intereseko inguru geografikoa aukeratu klik eginez, herria topa eta haren web gunean klik egin. Galduz gero, proposatutako web gunek hauek dira (beste batzuk izan daitezke, nahiz herri pobre askok ez daukan web gunerik): Angola: [\[olympang.org\]\(http://olympang.org\). Hego Afrika: \[www.nocsa.co.za\]\(http://www.nocsa.co.za\). AEB.: \[www.usolympicteam.com\]\(http://www.usolympicteam.com\). Frantzia: \[www.comite-olympique.asso.fr\]\(http://www.comite-olympique.asso.fr\). Australia: \[www.olympics.com.au\]\(http://www.olympics.com.au\).](http://www.coa-</p></div><div data-bbox=)

Espainiarako, kirol ezberdinak zehaztuko ditugu, federakunde bakoitzak babesle eta material emale propioak dituelako.

Kasu guztietan, hauxe bilatu beharko da: babesleak, bazkideak, partzuergoak, hornitzaileak, etab. aurreneko orrian egon daitezkeelarik edo haien menuetan. Batzuetan, "marketing" edo "denda" (saskibaloia) bezalakoetan aurki daitezke.

Ondoren, ikasleriak kontsumitu ohi dituen produktuekiko harremana bilatu behar du. Ohiko kontsumo markak aurkitutakoan, non fabrikatu diren aztertuko dugu (etiketak begiratzuz) eta non duen enpresak egoitza nagusia (www.transnationale.org begira dezakegu). Azken ariketa kirol jantzi eta oinetakoen atzean dagoenari buruzko eztabaida eragiteko erabiliko dugu.

4. ariketa:

Longius, citius, parvius

Helburua: kirol jantzi eta oinetakoak zein lan egoeratan egiten diren ezagutzea eta zer ondorio dakarkien horrek ekoizpen sektore honetako langileei.

Azterbideak: informazioak irakurri bitartez aztertuko dugu zein den jotzen duen biztanle taldea (emakume eta umeak), eta munduko zein tokitan kokatzen den.

Jarduera hau talde txikitari egin daiteke, langileen testigantzen azterketatik abiatuz.

5. ariketa:

Eta geuk, zer egin dezakegu?

Helburuak: kontsumitzaile garez gero dagokigun eginkizunaz hausnarketa egitea.

Azterbidea: testigantzen irakurketa abiapuntu, gure munduko injustiziei aurre egiteko aldakuntzak bultzatzeko ekintzetan parte hartu bai ala ez jokabide ezberdinei buruzko eztabaida egin ahal izango dugu. Egin daitezkeen ekintzen adibide bat Setem (<http://www.ropalimpia.org/>) eta Amnistia Internacionala (<http://web.es.amnesty.org/china/index.php?amnistia=documentos>) erakundeen web orrietan agertzen diren proposamenetan parte hartzea da.




Global express


Gaurkotasuna ikasgelan

JJ.00.: *citius, altius, fortius...*

1.



1. Uztai olinpiko bakoitzean, idatzi zure ikastetxean edo aisialdian egin ohi duzun kirolarekin lotzen duzun adjektibo bat.



2. Ondoren, uztai bakoitzean idatzi Joko Olinpikoekin lotzen duzun adjektibo bat.

3. Eztabaidatu zure ikaskideekin zer alderdi positibo edo negatibo ekartzen dizkioten kirolaren munduari Joko Olinpikoek.

2. Espiritu olinpikoa: joka dezagun garbi



Gutun olinpikoan "printzipio" gisa definituta dauden balioen eskalan agertzen da **espiritu olinpikoa**; gutun olinpikoa mugimendu olinpikoaren oinarritzko printzipioak, arauak, aplikazio-testuak eta funtzionamendua laburbiltzen dituen dokumentua da.

"Mugimendu olinpikoaren helburua –dio gutunak– mundu hobe eta baketsuagoa eraikitzen laguntzea da, espiritu olinpikoarekin eta inolako bazterketarik gabe egindako kirolaren bidez gazteria heziz; horretarako, beharrezkoak dira elkar ulertzea, laguntasun-espiritua, elkartasuna eta joko garbia."



Juramentu olinpikoa Pierre de Coubertin-ek idatzi zuen, eta lehenengoz Anberes-ko Joko Olinpikoetan esan zen, 1920an. Joko Olinpikoen edizio bakoitzaren inaugurazio-ekitaldian jokoak antolatu dituen herrialdeko atleta batek juramentu olinpikoa esaten du, bandera olinpikoaren ertz bat eskuan duela. Urteen joan-etorrian zenbait aldaketa izan ditu; esate baterako, Sydney-ko 2000ko jokoetan dopinari buruzko aipamena erantsi zitzaion. Gaur egun, hauxe dio:

Juramentu olinpikoa

"Gimnasta guztion izenean, zin dagit lehiaketa honetan indarrean dauden arauak errespetatuz eta betez hartuko dugula parte, dopinik eta drogarik gabeko kirolarekiko konpromisoa hartuz, benetako kirol-espirituari jarraiki, kirol honi loria eta gimnasta guztiei ohorea ekartzeko."



"Joko Olinpikoetan garrantzitsuena ez da irabaztea, parte hartzea baizik; bizitzan ere garrantzitsuena borroka baita, eta ez garaipena. Funtsezkoena ez da zerbait erdietsi izatea, borrokan ondo egin izatea baizik."

Pierre de Coubertin baroia, Joko Olinpiko modernoaren sortzailea (1894).



4. Ados zaude Pierre de Coubertin-ek dioenarekin? Zergatik?

5. Begiratu emaitzei, eta aztertu dominak nola dauden banatuta Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen artean:

Atenas 2004: Ur-jokoetako domina-zerrenda (igeriketa, jauziak, waterpolo eta sinkronizatua)				
Herrialdea	Urrea	Zilarra	Brontzea	Guztira
AEB	12	9	12	33
Australia	8	7	6	21
Txina	6	4	1	11
Japonia	3	3	4	10
Errusia	3	3	2	8
Herbehereak	2	3	2	7
Italia	2	1	1	4
Ukraina	2	0	1	3
Frantzia	1	2	3	6
Grezia	1	2	0	3
Polonia	1	2	0	3
Austria	1	2	0	3
Hego Afrika	1	1	1	3
Zimbabwe	1	1	1	3
Hungaria	1	1	1	3
Errumania	1	0	1	2
Alemania	0	2	4	6
Erresuma Batua	0	1	2	3
Kroazia	0	1	0	1
Serbia eta Montenegro	0	1	0	1
Kanada	0	0	2	2
Argentina	0	0	1	1
Trinidad eta Tobago	0	0	1	1
GUZTIRA	46	46	46	138

6. Zein uste duzu dela arrazoi nagusia Afrika, Asia edo Latinoamerika horren gutxi edo batere ez agertzeko domina-zerrenda honetan?

7. Beste zein kirol olinpikotan uste duzu gerta daitekeela gauza bera?

Atletismoa, badmintona, saskibaloia, eskubaloia, beisbola, boxeoa, txirrindularitza, eskrima, futbola, gimnasia artistikoa, gimnasia erritmikoa, halterofilia, hipika, hockeya, judoa, borroka, pentatloia, mahai-tenisa, piraguismoa, arraunketa, softballa, taekwondo, tenisa, arku-tiroa, tiro olinpikoa, triatloia, bela, boleibola, hondartzako boleibola.

8. Orain, taldeka begira ezazue helbide honetan, ea beste kirol guztietan ere dominak era bertsuan banatzen diren ala ez: http://es.wikipedia.org/wiki/Juegos_Olímpicos_de_Atenas_2004 Azaldu elkarri atera dituzuen ondorioak eta, ondoren, eztabaidatu egoera hori eragiten duten zergatiei eta horrek dituen ondorioei buruz.

Zer da dopina?

"Debekatutako substantzia eta farmako-taldeak eta arauz kanpoko metodoak sustatu, bultzatu, kontsumitu edo erabiltzea, kirolarien gaitasun fisikoak hobetzeko edo parte hartzen duten lehiaketen emaitzak aldatzeko".

Espainiako Batzorde Olimpikoa (1990)

"Zuzendariek gezurra diote, dopinaren aurkako kontrolek ez dute ezertarako balio. Beraiek kontrola dezakete, baina ez dute nahi. Kirola zikinduta dago."

Carl Lewis, Nazioarteko Batzorde Olimpikoaren (NBO) esanetan "mendeko atleta" izan zena, Sydney-ko 2000ko Joko Olimpikoetan.

Ben Johnson-ek garaipena lortu zuen 100 m laueta finlean, Seul-go 1988ko Joko Olimpikoetan. Lasterketa horren ondoren esteroideengatik eman zuen positiboak atletismo profesionalaren mundua harri eta zur utzi zuen. Erroman egin zen 1987ko munduko txapelketan, Johnson ospetsu egin zen Carl Lewis garaitu ondoren; halaber, txapelketa horretan munduko errekorra gainditu zuen, marka estratosferikoa lortuz: 9,83 segundo. Urtebete geroago, Johnson eta Lewis-ek elkarren aurka korritu zuten berriz final handi batean, Seul-go 1988ko Joko Olimpikoetan. Berrito ere, Johnson-ek Lewis garaitu zuen, eta munduko errekorra are gehiago txikiagotu zuen, gainera: 9,79 segundotan utzi zuen. Mundua txundituta geratu zen; Johnson heroia zen. Baina handik egun gutxira, gerru-analisi batek agerian utzi zuen Johnson-ek esteroideak hartu zituela; dopinagatik kaleratu egin zuten, eta bi urterako lehiatzeko debekua ezarri zioten. Lehiakirolera itzuli zenean, berrito ere positibo eman zuen, eta bizitza osorako kanporatu zuten lehiaketetatik.



Ted Grant



Azken dopin-kasu nabarmena **Marion Jones** atletarena izan zen; Jones-i bi urteko gaitasungabetzea ezarri zioten, eta Sydney-n 2000ko Joko Olimpikoetan irabazi zituen bost dominak –hiru urrezko eta bi brontzezko– bueltatu egin behar izan zituen. Izan ere, dominok debekatutako substantzien eraginpean irabazi zituen, zehazki, "garbitzaile" izenez ezagutzen den THG esteroide sintetikoaren eraginpean. "2000ko irailean, Sydney-ko Joko Olimpikoen aurretik, Graham [bere entrenatzaile ohia] liho-hazia omen zen substantzia bat ematen hasi zitzaidan. Substantzia hori 2001eko uztailera arte hartu nuen", azaldu zion Jones-ek epaileari entzunaldian. "2003ko azaroan, produktu dopagarriak zirela ulertu nuen".

9. Gertakari eta adierazpen horiek eta dopinaren definizioa kontuan hartuz, erantzun galdera hauei:

- Zer ondorio ditu dopinak, kirolariarentzat nahiz lehia-kirolarentzat?
- Dopina eta kirola bateragarriak direla uste duzu? Azaldu zergatik.
- Dopinaz gain, beste zein alderdi dira espiritu olinpikoaren aurkakoak? Azaldu zure erantzuna.

3. Ikuskizunaren negozioa: babesleak

10. Bilatu kiroleko materiala edo jantziak fabrikatzen dituzten zer enpresak babestuko dituzten estatuko taldeak Pekingo 2008ko Joko Olinpikoetan, eta pentsatu zuk ere marka horretako produkturik kontsumitzen duzun. Ikertu non egiten diren:

Batzorde Olinpikoa		Enpresa babeslea	Kontsumitzen duzun produktua	Non egiten den
TXINA				
ITALIA				
AEB				
FRANTZIA				
AUSTRALIA				
ESPAINIA	ADO (www.ado.es)			
	Atletismoa (www.rfea.es)			
	Saskibaloia (www.feb.es)			
	Eskubaloia (www.rfeb.com)			
	Tenisa (www.rfet.es)			
	Futbola (www.rfef.es)			

- 11.** Hautatu zure ikaskideek gehien erabiltzen dituzten 5 kirol-markak eta, etiketei begiratuz, ikertu zein lekutan egiten diren. Ondoren, osa ezazu kirol-marka bera fabrikatzen duten herrialdeen zerrenda bat.

Kirol-marka	Fabrikatzen duten herrialdeak	Egoitza nagusia non dagoen
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		

- Zer ezaugarri komun dute marka bat fabrikatzen duten herrialde horietako gehienek?
- Zergatik uste duzu herrialde horietan fabrikatzen direla, marka horiek gehienbat Ipar Amerikan eta Europako Batasunean kontsumitzen badira?

- 12.** Begira iezaiezu argazki hauei.



© Gettyimages



© Fernando Morales, Internón Oxfam

- Asma dezakezu kiroleko jantzi eta oinetakoen atzean zer dagoen?

4. *Longius, citius, parvius...*

Beste zenbait errekor

- Latinoamerikan 5 eta 14 urte bitarteko 5 umetatik batek lan egiten du; Afrikan, hirutik batek; eta Asian, bitik batek.
- Multinazionalak azpikontrataturako Dominikar Errepublikako fabriketan 150.000 pertsonak baino gehiagok egiten dute lan, eta gehienak emakumeak dira. Han, emakume langile batek egiten duen galtza bakoitzeko, galtza horrek merkatuan balio duena baino 3.000 aldiz gutxiago kobratzen du.¹
- Indonesian, duintasunez bizi ahal izateko hilean gutxienez 1,5 milioi errupia (178 dolarreko) soldata behar da; aldiz, Reebok-entzat lan egiten duten fabrika batzuen hileko soldata estandarra 816.000 errupia da (98,6 dolarrekoa).
- Adidas-entzat jantziak egiten dituen Kanbodiako fabrika bateko emakume langileek 960 galtza josi behar dituzte egunean, 10 eta 12 dolar bitartean kobratu ahal izateko.²

Hain urrun...

Maquilak piezak muntatzen dituzten enpresak dira, azken produktua fabrikatzeko. Teknologia askorik ez du behar, baina bai eskulan masiboa. Iparraldeko kontratista batentzat egiten dute lan maquilek; hark lehengaiak edo muntatu beharreko piezak ematen dizkio.

Maquilak "zona frankoetan" kokatu ohi dira, hau da, Hegoaldeko gobernuek enpresa multinazional handien inbertsioak erakartzeko sortzen dituzten industrialdeetan. Horretarako, gobernuek enpresei erraztasun ekonomiko handiak eskaintzen dizkiete: ez dute zergarik ordaindu behar izaten, dirua herrialdetik erraz atera ahal izaten dute eta bertako azpiegiturak eta zerbitzuak erabil ditzakete.³

...eta hain hurbil

Arropa bakeroa fabrikatzen duen Levi's enpresa estatubatuarrak iragarri du irailaren amaieran 1982az geroztik Sant Julià de Llor i Bonmatí'ed-n (Gironan) duen galtza-fabrika itxi egingo duela; han 285 pertsonak egiten dute lan. Halaber, Olvega-n (Soria) duen beste fabrika bat ere itxi egingo duela iragarri du. Fabrika horien produkzioa Levi's-ek Polonian, Hungarian eta Turkian dituen fabrikek hartuko dute beren gain. Bestalde, Ekonomia Zirkuluak "Hazkundera laguntzen duten jarrera sozial eta politiko publikoak" izeneko dokumentu bat kaleratu du; dokumentu horretan, esaten du deslokalizazioen fenomenoak ez dela "desindustrializazioaren seinale, gizartearen aurrerabidearen ondorioa baizik". Aldi berean, "balio erantsia sortzea" oinarri duen estrategia ekonomiko berria defendatzen du.

13. Identifika dezakezu datu hauek zer arazo uzten dituzten agerian, munduko zein lekutan gertatzen diren eta eragin handiena zein talde sozialengan duten?

Arazoak	Munduko zonak	Gehien kaltetutako biztanleria

¹ Juan Carlos Galindo. Centro de Colaboraciones Solidarias.

² "Jokatu garbi olinpiadetan" txostena. CC.OO., UGT, Setem eta Intermón Oxfam.

³ *Guía educativa para el consumo crítico*. Sodepaz. Los libros de la catarata, 1998.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) hau dio:

- Pertsona guztiek dute eskubidea **lan egiteko** eta beraien lana askatasunez aukeratu ahal izateko.
- Pertsona guztiek dute eskubidea **egokiak eta bidezkoak diren lan-baldintzak** izateko.
- Pertsona guztiek dute eskubidea familia guztiari duintasunez bizitzeko aukera ematen dion **bidezko lan-saria** jasotzeko.
- Pertsona guztiek dute eskubidea langabezia, gaixo edo zahartzaroan daudenean **gizarte-segurantza** edukitzeko.
- Pertsona guztiek dute eskubidea **sindikatuak** sortzeko eta horietan parte hartzeko.
- Pertsona guztiek dute eskubidea **atseden hartzeko**, aisialdiaz gozatzeko, zentzuzko lanaldia edukitzeko eta oporraldi ordainduak edukitzeko.

14. Orain, hiru taldetan bana zaitezke. Talde bakoitzak ondoren aurkituko dituzuen testigantzetatik bat aztertu beharko du. Azaltzen duten lan egoeraz eztabaidatuko duzue, kasu bakoitzean zein lan eskubide betetzen ez den ikertu eta zer ondorio daukan horrek pertsonengan.

Reebokentzat ekoizten duen fabrika bateko emakume langile indonesiar batek dio:

"Ordu estrak egin behar ditugu gure oinarritzko soldatak ez direlako bizitzeko nahikoa. Hilero ordaindu behar dugu gelaren alokairua, janaria eta garraioa ere ordaindu egin behar ditugu."


Fatima, Indonesiako 22 urteko emakumea, fabrika batean Adidas, Fila, Nike, Puma eta Lottorentzat lan egiten duena:

"Osasun arazo ugari izan dut: buruko minak, beherakoa, urdaileko gripea, bizkarreko mina eta gihar karrotadura. Guzti hori fabrikako egoeraren ondorioa da: ainerik gabe, egun osoan zutik eta ordu luzeak lanean atsedenik gabe, ur edo janari nahikorik gabe."

Umbro eta Pumarentzat ekoizten duen beste fabrika bateko langileak dio:

"Ordu estren ondoren nekatuegi gaude beste ezertarako. Gripea oso normala da, langile askok ez duelako erregulariki jaten. Tripetako min ugari ere izaten dugu. Emakume askok umea galtzen du etengabeko lanaren ondorioz: lan orduen ondoren, ordu estra gogorak etortzen dira."

5. Eta guk, zer egin dezakegu?



Felipe

Zertarako mobilizatuko naiz, gero ez du ezertarako balio eta. Zer egin dezaket nik beste gauza guztien gainetik interes ekonomikoak jartzen dituzten multinazionalen aurrean? Zer axola die horiei Felipe Martín jendearen esplotazioaren aurka egotea? Enpresei irabaziak bakarrik interesatzen zaizkie.

Zer egin dezaket? Zerbait erosi nahi dudan bakoitzean muinak urtzen ibili? Gehien atsegin ditudan markak edo zenbait hipermerkatutan erosteari utzi? Zergatik izan behar dut nik hori egiten lehena, besteei beti bezala jarraitzen badute? Futbolariak era justuan fabrikatutako baloiekin izan ezean partida bat jokatzeari uko egiten dioten egunean, nik ere aldatuko dut nire jarrera.

Gainera, jendea apur bat zapaltzen duten marka jakin batzuk erosteari uzten badiogu, hainbat haur eta emakume langabezian utziko ditugu. Hobe da gutxi kobratzea, lanik gabe geratzea baino, ezta?

Marta

Denbora luzez langabezian egon ondoren, orain neure kabuz bizi ahal izateko adina ematen ez didan lana daukat. Alegia, gurasoekin bizi naiz, daukadan kontratu kaxkarra ez baita nahikoa alokairu bat ordaintzeko ere.

Ongi dakit munduan milioika pertsonak ezin dituztela beren oinarritzko beharrak ase, eta emakume langile asko eta asko lanean esplotatuta daudela. Baina alde guztietan ibiltzen dira zakurrak hanka hutsik, eta gure herrialdean ere konpondu beharreko arazo mordoa dago.

Nik baditut nahikoa buruhauste jada, kontsumitzen dudana emakumeak esplotatzen dituen marka batekoa den ala ez pentsatzen ibiltzeko. Nik prezioari begiratzen diot, eta merkeena edo eskaintzan dagoena erosten dut.

Lehenik eta behin etxeko arazoak konpontzen ahalegindu behar dugu. Gero izango dugu astirik urrunago begiratzeko.

Gema

Nik ez dakit mundua aldatzea lortuko dudan, baina ezin dut geratu ezer egin gabe injustizien aurrean. Egoera bidegabean dauden pertsonen izenean hitz egitera behartuta gaude.

Dendetan arropa zer lan-baldintzatan fabrikatu den galdetzen badut, iradokizun-postontziak erabiltzen baditut erantzukizunak eskatzeko, gauzak aldatzeko urrats txiki bat egiten ariko naiz. Prezio txikiko bi jantzi erosi beharrean, fabrikazio-berme hobea duen jantzi bakarra erosten badut, garestiagoa izanik ere, kontsumo arduratsua egiten ariko naiz eta, aldi berean, gure gizarteko arlo guztietan gehiago itxaron gabe egin beharko genukeen murrizketa bultzatuko dut.

Ni GKE bateko kide naiz, eta hainbat ekintza solidariotan hartzen dut parte. Ikasten eta lanean ari naizen arren, nire denboraren zati handi bat ekintzak eta mobilizazioak egiteari eskaintzen diot, hemengo nahiz munduko beste leku batzuetako egoera bidegabeak salatzen.

15. Eta zuk, zer iritzi duzu?

16. Zein da gure zeregina guzti honetan? Gizartearen mobilizazioak gauzak aldaraz ditzake? Ezertarako balio du inplikatzeko?